



# KOLOREEN MINTZAIRA

## 10.- Koloreen nahasketa(1)

Gida didaktikoa

## 10.- Koloreen nahasketa(1)

Aurreko kapituluetan ikusi ahal izan dugun bezala, koloretako paperez egindako nahasketak bestelako bitarteko batzuez egindakoak baino erakargarriagoak dira ikusteko; horregatik, bideo honetan, kolore nahasketa batzuek gure begien aurrean nolako portaera izaten duten ikusiko dugu.

Lantegian, material koloratzaile batzuen bidez, koloretako mailaketak nola egin erakusten da.

*Bideoa ikusi aurretik, doitu zure telebistaren sintonia, kroma, distira eta kontrastea, gida honetako NOIZ ETA NOLA ERABILI atalean esan bezala.*

### KOLOREEN NAHASKETA -1-

02:00. - Sarrera.

04:29. – Koloretako paperak nahasten.

07:18. – Nahasketa gehigarriak.

08:44. – Nahasketa kengarriak.

10:41. – Koloretako pinturak nahasten.

12:30. – Espazio ilusioa.

14:45. – Nahasketa optikoa.

17:16. – Argi intentsitatea.

22:26. – Lantegia: koloretako mailaketak sortzen.

### **Lantegia: koloretako mailaketak sortzen.**

Material koloratzaile batzuekin, koloretako mailaketak nola egin ikusiko dugu lantegian. Ondoren, mailaketak egin eta gero, ikasle bakoitzak, lortutako tonu bakoitzari, izen bat jarri beharko dio.

Erabiliko ditugun materialak:

Folio zuriak.

Paper zuri lodia.

Koloretako arkatzak (primarioak eta osagarriak gehi beltza).

Koloretako errotulagailuak (primarioak eta osagarriak gehi beltza).

Pintura (aurreko bideoko lantegian erabilitakoa).

Guraizeak.

Txantiloak paperen tamaina zehazteko.

Lekeda.

**Espazio ilusioa.** Ikusmeneko efektua. Kolore multzo bateko koloreak espazioan mugitzen direla ematen duen efektua.

**Intentsitate kromatikoa.** Kolore baten distira.

**Argi intentsitatea.** Kolore baten argitasuna, hau da, kolore horrek argia islatzeko duen ahalmena.

**Nahasketa optikoa.** Batzuk besteen alboan jarritako koloretako orban txikiek gure ikusmenean sortzen duten nahasketa efektua.

**Nahasketa gehigarriak.** Bi edo kolore gehiago batzen direnean eta, gure begien aurrean, kolore bakar bat bezala agertzen direnean.

**Nahasketa kengarriak.** Bi edo kolore gehiago batzen direnean eta kolore baten isla bezala agertzen direnean gure begien aurrean.

## LIBURUAK

¿Qué es la luz?	Heel. Guadarrama. Madrid-1968
El color del aire libre	Wels. Omega. Bartzelona-1965
Luz visible y luz invisible	Ruechardt. Labor. Bartzelona-1960
El gran libro del color	Blume. Madrid-1990
Arte y percepción visual	Arnheim. Alianza. Madrid-1979
La interacción del color	Albers. Alianza. Madrid-1979
El lenguaje del color	Sanz. Blume. Madrid-1985

Koloreen mintzaira eta koloreek ematen duten informazioa etengabe aldatzen ari da. Horregatik, goian aipatu liburuak oso garrantzitsuak izan arren, bada beste bat, gu geu egunero osatzen ahaleginduko garena. Ikasleak lantegi orduan egingo dituen ariketa eta haien gaineko oharrek jasoko dituen koadernoaz ari gara. Horixe izango da, ez izan dudarik, koloreen gaineko gure ohar biltegirik onena.

### Ekoizlea:

**iadi**

### Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

**LG.- VI-81 / 03**

HEZKUNTZA,  
UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA  
**2003-07-17**